

HEZEGUNEAK (PADURAK ETA ZOHIKAZTEGIAK)

DESKRIBAPENA



Ibai nagusien bokalean sortzen diren hezeguneak dira padurak. Leku horiek mareen eragina jasotzen dute, eta, gutxiago edo gehiago, urez betetzen dira. Laboreetarako ez da munduan ingurune aberats eta emankorragorik; izan ere, mareak gora egiten duenean, jalkinak uzten ditu. Gainera, oso ingurune bereziak eta naturaltasun handikoak dira. Horren adierazle, organismo ugari bizi da paduretan: alga planktonikoak, landare eta fauna ugari (batez ere, hegaztiak), etab.

Urdaibaiko padurak

Zohikaztegia hezegune azido mota bat da. Hezegune horietan, materia organikoa zohikatz moduan pilatzen da. Aintzira edo urtegi batean deskonposatutako materia baino materia organiko gehiago metatu denean sortzen dira zohikaztegiak. Hala, aintzira edo urtegia material organikoz bete daiteke azkeneraino; zohikaztegiko zati handiak isurialdeetako ura eta lurpeko ura ukitzen ez dutela geratzen dira, eta, horren ondorioz, euri-uraz hornitzen dira, batez ere. Hau da, erregimen ombrotrofiko bihurtzen dira ekosistemarako. Hori gertatzen denean, mantengugai gutxiko uretan bizirauten duten espezieak ugaltzen dira, hala nola Sphagnum generoko goroldioak. Zohikaztegiatan, landaredi oso espezializatua hazten da.



Zalamako zohikaztegia (Ordunte)

EUNIS HABITATAK


EUNIS KODEA	EUNIS Habitata
A2.511	Itsas hondoetako <i>Zostera noltii</i> formazioak
A2.63C	<i>Phragmites australis</i> espezieko lezkadi gaziak
A2.636	<i>Juncus maritimus</i> espezieko padura-ihitzak
D1.2	Estaldura-zohikaztegiak
D2.3	Esfagnadi azidofiloen hezeguneak
D4.11	Hezegune basofilo mediterraniarra, <i>Schoenus nigricans</i> -ekin
D4.14	Eragin piriniar edo kontinentaleko hezegune basofiloa
D5.11	Ur liberrik gabeko <i>Phragmites</i> -lezkadiak
D5.24	<i>Cladium mariscus</i> hezeguneak
A2.651	<i>Salicornia</i> , <i>Suaeda</i> eta <i>Salsola</i> generoko padura aitzindariak
A2.654	<i>Spartina maritima</i> eta <i>S. alterniflora</i> larreak
A2.658	<i>Sarcocornia perennis</i> espezieko padurak
D5.3	<i>Juncus effusus</i> eta beste ihi handiak nagusitzen diren ihidiak
D4.15	Hezegune basofilo atlantiar eta subatlantiarra
D5.13	Ur liberrik gabeko <i>Typha spp.</i> lezkadiak
D5.21	Karize handien eta/edo <i>Iris pseudacorus</i> -en formazioak

EUNIS KODEA **EUNIS Habitata**

D6.21 Kubeta endorreikoetako *Phragmites*-lezkadi halofiloak













BANAKETA

Padurek eta lezkadi gaziek 351 ha-ko azalera hartzen dute; hau da, EAEko azaleraren % 0,05.



EMANDAKO ZERBITZUAK

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
<p>Elikagaiak</p> 	<p>Ekosistema hauetan, elikagai ugari aurki daitezke (arrainak, bibalbioak, krustazeoak, etab.).</p>	<p>Klima erregulatzea</p> 	<p>Ekosistema hauek karbono-biltegi apartak dira, eta horrek klima erregulatzen laguntzen du.</p>	<p>Aisialdiko jarduerak</p> 	<p>Turista asko joaten dira inguruko hezeguneetara, bertan aisialdiko jarduera ugari egin baititzakete.</p>
<p>Ur geza</p> 	<p>Hezeguneetako landareek elementu kutsatzaileak atxikitzen dituzte, ur-araztaileak balira bezala.</p>	<p>Airearen kalitatea erregulatzea</p> 	<p>Landarediak eta beste organismo batzuek aireko kutsatzaileak atxikitzen dituzte, eta haren kalitate ona bermatzen.</p>	<p>Jakintza zientifikoa</p> 	<p>Ezagutza-iturri bikainak dira ekosistema hauek, hainbat ikerketa egiteko aukera ematen dutenak.</p>

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
<p>Lehengai biotikoak</p> 	<p>Mareek dakartzaten materialak ongarriztat erabiltzen dira.</p> <p>Zohikaztegietatik zohikatza ateratzen da, eta hori ere ongarriztat erabiltzen da.</p>	<p>Ura erregulatzea</p> 	<p>Hezegune asko estu lotuta daude lurpeko urekin; bi-biak dira garrantzi handikoak ura erregulatzeko.</p>	<p>Ingurumen-heziketa</p> 	<p>Ekosistema hauetan, ingurumen-heziketarekin lotutako programa ugari abiarazi dituzte tokian tokiko interpretazio-zentroek.</p>
		<p>Higadura kontrolatzea</p> 	<p>Habitat hauetara egokitutako espezieek lurzorua egonkortzen dute, eta mareek higadurarik ez eragitea bermatzen.</p>	<p>Jakituria tradizionala</p> 	<p>Ekosistema hauetan, antzinako ohitura askori eusten diete, hala nola itsaski-bilketari, beita bidezko arrantzari...</p>
<p>Energia berriztagarria</p>  <p><i>Inaki Zorrukin</i></p>	<p>Zohikaztegietatik zohikatza ateratzen da, eta biomasa-erregai gisa erabiltzen.</p>	<p>Lurzoruaren emankortasuna</p> 	<p>Lehorreko ekosistemetan, zohikaztegi eta padurak emankorrenetako bi ditugu, mantenu ugari baitituzte.</p>	<p>Paisaien estetikaz gozatzea</p> 	<p>Ekosistema hauek gozamen-iturri ditugu, beren balio estetiko eta bertako biodibertsitate itzela direla tarteko.</p>
<p>Gene-gordailua</p> 	<p>Hezeguneak dibertsitate genetiko handikoak dira; badira, nabarmenen artean, zenbait espezie, Euskadin arrisku-egoeran daudenetakotzat joak, hala nola <i>Eriophorum vaginatum</i> izenekoa.</p>	<p>Naturako nahasketak erregulatzea</p> 	<p>Zohikatza belaki baten modukoa da, ura lurzoruan mantso-mantso iragazaratzen duena; itsasertzeko hezeguneek mareen dinamika erregulitzen dute, ekaitzak izaten direnean batik bat, eta uholdeak kontrolatzen dituzte.</p>	<p>Identitate kulturala eta toki bateko izatearen sentipena</p> 	<p>Gurean, zenbait hezegunek arrasto kultural sakona utzi dute; Salburukoak, esate baterako.</p>
		<p>Kontrol biologikoa</p> 	<p>Habitat hauek oreka-egoeran daudenean, erraz erregula daitezke izurri eta inbasioak.</p>		
		<p>Polinizazioa</p>	<p>Ekosistema hauetan espezie ugari daude, eta horri esker, polinizazio-prozesuetan elikagai</p>		

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
			ugari izaten da.		